

BERGARA 2009

AZAROAREN 13TIK 29RA DEL 13 AL 29 DE NOVIEMBRE
argazki erakusketa *exposición de fotografía*

Don Serafinen Bergara 1964-1992

Serafin Esnaolak Bergarako egonaldian
ateratako argazkiak



AROTEGI
ARETOA

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

Don Serafinen Bergara. 1964-1992

Serafin Esnaolak Bergarako egonaldian ateratako argazkiak

ANTOLATZAILEA ORGANIZADOR

Begarako Udal Artxiboa [Archivo Municipal de Bergara](#)

KOORDINATZAILEA COORDINADOR

Miguel Angel Elkoroberezibar

PRESTAKETA TALDEA EQUIPO DE PREPARACIÓN

Arantzazu Oregi, Pili Azkarate, Arantzazu Unanue, Eneko Azkarate, Iñaki Madinabeitia eta Iñaki Irizar

KOLABORATZAILEAK COLABORADORES

Proiektoreak, zine eta argazki kamarak eta filmeak utzi dizkigutenak: Javier Berzosa (Trintxerpeko Karmengo Amaren parrokia), Iñigo Mitxelena (Begarako San Pedro parrokia), M^a Angeles Esnaola, Iñaki Madinabeitia, Pol-Pol M.T. eta Euskadiko Filategia. Eskerrik asko informazio-iturri eta laguntzaile izan ditugun guztioi.

TESTUAK TEXTOS

Miguel Angel Elkoroberezibar

ARGAZKIAK FOTOGRAFÍAS

Serafin Esnaola

Mikel Lazpiur (Serafin esnaolaren erretratua)

INPRIMAKETA-EDIZIOA IMPRESIÓN-EDICIÓN

K3 Inprimategia

ARGITARAPENA EDICIÓN

Begarako Udala [Ayuntamiento de Bergara](#)

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL

SS-1448-2009

Don Serafinen Bergara 1964-1992

Serafin Esnaolak Bergarako egonaldian
ateratako argazkiak

Aroztegi Aretoa. Bergara
2009ko azaroaren 13tik 29ra del 13 al 29 de noviembre del 2009




AROTEGI
ARETOA



BERGARAKO
UDALA

Ekintzaile baten lekukotasuna

Miguel Angel Elkoroberezibar



Serafin Esnaola (Errezil 1915 - Donostia 2002).

‘Zine eta argazki zalea premiaz izan naiz’, adierazten zuen maiz don Serafinek. Memoriak idazteko ez zen gauza sentitzen eta gertakizunen nolabaiteko agiria lortzea beharrezkoa zela iruditzen zitzaion; ‘baina ni ez naiz artista’, argitzen zuen. Bere argazki eta filme asko denborarekin historikoak bihurtu dira, baina haietako parte garenontzat gure bizitzako momentu jakin bateko lekukotasuna osatzen dute. Horixe izan da erakusketa honen helburua, don Serafinen Bergara hura, 1964tik 1992ra doana, bere argazki eta filmeen bidez berreraikitzea eta orduko pasadizuak berpiztea, bide batez don Serafinek jorratutako lan isilari geure esker ona aitortuz.

Hil aurretik, nire esku utzi zituen berak ateratako ia lau mila argazki, gehienak Bergara eta bere herritarrekin lotura zuzena dutenak. 2008ko otsailean Bergarako Udal Artxiboari dohaintzan eman nizkion, bertako agiritegian hobeto gordetzearren eta herritar guztien eskura izatearren. Udalak, bere aldetik, argazki horiek denak digitalizatu egin ditu eta horietako batzuetaz baliatu naiz Udal Artxiboarekin batera erakusketa hau prestatu eta don Serafini buruz idatzi dudan liburuko pasarteak ilustratzeko.

Bidegabeki zigortua, minduta eta lur jota Bergarara 1964an iritsi zenerako ia berrogeita hamar urteko bide malkartsua igarota zeukan don Serafinek, beti aurreneko lerroan. Hogeita bost urte Trintxerpen egin ostean, hogeita zortzi burutu zituen Bergaran, bereziki San Antonio auzoan. Trintxerpeko moldea ezarri zuen bertan eta, han bezala, arrakastaz.

Ibilbide luze bezain oparoa berea. Ez zen protagonismo bila zebilen horietakoa, klandestinitateak berarekin dakarren diskrezioari heldu zion uneoro. Beti bigarren planoan, umil, baina burua tente, adi ingurukoari, kalea bere lantoki, lagunaren lagun, aurkariak ondo ulertuz, praktikoa, jenio bizikoa eta keinu gogorrekoa, baina era berean umoretsu eta sentibera, beti eragile eta sustatzaile. Liderra zen. Hizlari ona izan ez arren, bere hitz labur eta zuzenak eraginkorrak ziren oso, komunikatzaile aparta zen. Ez zen idazlea, baina nazioartean garrantzia izan zuten dokumentuak prestatu zituen eta bi liburu argitaratu. Bere printzipioak inoiz saldu gabe, giza-eskubideen alde borrokatu zuen bizitza guztian, gizarte justu eta aske bat helburu. Klandestinitateko euskal kleroaren berregituraketan funtsezko papera bete zuen, Euskal Apaiz Taldearen zutabe nagusietako bat bilakatuz. Abertzale handia, militantea. Euskaltzalea eta kirolzalea inondik ere. Talde-antolaketa eredutan aintzindari; eta katekesiei buruz zer esan, maisu berritzailea eta haurrekin eta gaztetxoekin Hamelingo txistularia zirudien. Herria biziki maite zuen. Ekintzailea eta bere garaia aurre hartu zion gizona.



Bergarako apaizak Elosun 80ko hamarkadan.



San Antonioko katekesian, 1981.



Katekesiko txangoa Donostiara autobusean, 1982.



San Antonioko jaietan, 1965.



Udal musika banda San Antonioko jaietan, 1969.



Haur danborrada
San Antonion, 1981.

Jaiotzen lehiaketa
San Antonion, 1977 inguru.





Gureak-ekoen bilkura probintziala
Anoetako belodromoan.
Donostia, 1981 inguru.



Komenio kaleko
Koldo Eleizalde ikastola.
1970eko urtarila.



Gaztetxoak Gorlan, 1970 inguru.



Ibilaldi neurtua. Gorkako kontrola, 1971/04/18.



Dominak partitzen San Martzialen, 1968/05/12.



Urbasako kanpaldia, 1976.



San Antonioko jaietako arbola jartzen, 1987.



Begarako Pazkoak, 1967.

Don Serafinen Bergara 1964-1992

Serafin Esnaolak Bergarako egonaldian
ateratako argazkiak



AROTEGI
ARETOA



BERGARAKO
UDALA